



ORDAINKETA ZATIKATUAK ESTATUKO EDO NAFARROAKO ARAUDIAREN PEAN DAUDEN ENTITATEENTZAT

Araudia: Ekonomia ituna onetsi zuen 12/2002 Legearen 17.2 artikulua.

Aurkezteko epeak:

Epeak apirilaren, urriaren eta abenduaren 1etik 20ra.

Kuotak zehaztea:

Ordaindu beharreko kuotaren kalkulua ere, aplikatzekoa den araudi egokia aplikatuz egingo da.

Ordainketa zatikatua lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan egin behar duten entitateek, zergaren azken likidazio-aitorpenean zehaztutako proportzioa aplikatuko dute. Hala ere, beste proportzio bat aplikatu ahal izango dute 12/2002 Legearen 17.2 artikuluan eta 37/2013 Foru Arauaren 130.6 artikuluan jasotzen diren kasuetan.

Ordaintzeko kuotarik ateratzen ez bada, aitopen nulua aurkeztuko da beti.

Aurkezpena: telematikoa

202 eredia (banakako araubidean) eta **222** eredia (zerga baterakuntzako araubidean), online bete eta nahitaez telematikoki aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoaren bidez.

Aurkezteko prozedura: www.araba.eus - Egoitza elektronikora sartzea - Banakako aitopenen aurkezpena - Ziurtagiri digitalaz identifikatzea - Sortzea eta bidaltzea - Aitopenak sortzea eta bidaltzea - Eredua (202 edo 222), urtea eta epealdia (lehenengo, bigarren edo hirugarren ordainketa zatikatua) aukeratzea - Eredua sortzea - Eredua betetzea eta bidaltzea.

Laguntza zerbitzua:

202 eta 222 ereduaren aurkezpen telematikoaz zalantzarik baduzu, dei egin dezakezu Egoitza Elektronikoko Laguntza Zerbitzura:

- Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 945 56 90 28
- Posta elektronikoa: diputaciondigital@araba.eus

Zerga arloko edozein zalantzatarako, gure Zerga Argibideetarako Zerbitzuarekin harremanetan jar zaitezke:

- Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 945 18 15 55
- Posta elektronikoa: consultasfiscales@araba.eus